

ESPERANZA PASTOR



Ezda, ez, gorputz galanta duten
zenbait mirabe bezela
arrokerriyaz bere burua
erakusten dabillena;
larpean umill gorderik dagon
lorecho baten antzera
orri guchi ta likurt asko dun
lore biziya zu zera.

Intzaz apaiñdutako
landare gaztia,
sentiera samurrez
oparo betia,
biotzmugida gošo
denaren kabia
zu zera Talia-ren
ișpillu garbia.

Lendabiziko irrintziya zuk
amachoren magalian
egin zenduan ama mușuka
eziñ ase zan batian;
geroztik ala beti maitaro
amaren aldamenian
igaro dezu mundu guztiya
irri ta chalo tartian.

Gau askotan kantatzen
ari zeranian,
denok zuri begira
pozez gaudenian,
ondo gentzaguke esan
ala zaudenian
aingerun bat dagola
zure barrenian.

Illunabar ta gau ișilletan
errechinol bat kantari
asten danian egoten gera
entzutzen pozez berari;
bañan alare ezdu kantatzen
chori ark zuk beziñ ongi
etzarrichuan dauzkatzulako
baten ordez milla chori.

Nais farrez egon eta
naiz egon mintsua
beti suspiriyoka
zure kolkochua;
penaturik urrungaz
ari dan ușua
iñoiz esan liteke
zerala... ¡gașua!

EMETERIO ARRESE.

Habana-n, Apirillaren 26-an.

